

# 2

## Bidegurutzetik ateratzeko palankak

**Kike Amonarriz eta Iker Martinez de Lagos**

*Topalabeko kideak*

kikeamonarriz@gmail.com

iker@topagunea.eus

Sarrera-data: 2017-04-03 | Onartze-data: 2017-04-28

**Laburpena.** Euskararen normalizazio prozesuan ziklo aldaketa bat gertatzen ari da. Ziklo berri bat abiatzeko proposatu diren neurrien artean, euskaltzaleen mugimenduak herriz herri landu ditzakeenak aztertu dira artikuluan. Euskaltzaleen Elkarteek zubigintza landu behar dute, ahalik eta sektore sozial gehienetara iritsiz eta herri eta eskualdeetako zoru komuna eta arnagune politikoa eraikiz tokian tokiko administrazioekin eta herriko eragileekin. Bide horretan, darabilgun diskurtsoa egokitu egin behar dugu egoera berrira, sektore berriak barne hartuko dituen diskurtso aglutinatzaileagoa eraikiz elkarrekin, eta diskurtso horrekin koherenteak izango diren praktikak sustatuz. Azkenik, ziklo berri baterako, euskaltzale motibatu, aktibo eta eragileak behar ditugu, bizipozez eta antolatuta eragingo dutenak. Eta hori ere bada euskaltzaleen mugimenduaren funtzioa: Euskaltzaleon motibazio eta bizi-indarra indartu, konpromisoen dinamikatatik urratsak emanez lorpen dinamika berrietara. • **Hitz gakoak:** *euskaltzaleak, bidegurutzea, palankak, zubigintza, motibazioa*

**Abstract.** We are currently witnessing a change of cycle in the Basque language normalisation process. Of the various measures that have been suggested for setting the new cycle in motion, this paper analyses those that can be implemented by pro-Basque language movements at a municipal level. Associations seeking to promote the Basque language should strive to build bridges, reaching out to as many social sectors as possible and building common ground and political breathing spaces in collaboration with local administrations and stakeholders. As part of this process, we must also adapt our discourse to the new situation, working together to build a new agglutinating discourse that includes all the new sectors, and to establish practices that are consistent with it. Finally, the new cycle that is just beginning requires motivated, active, effective, enthusiastic and well-organised Basque language promoters. And this too is one of the functions the pro-Basque language movement should seek to perform. In other words, it should strive to increase motivation and enthusiasm, taking steps to move from a commitment-based dynamic to a new way of working based on achievements and outcomes. • **Key words:** *Basque language promoters, crossroads, drivers, building bridges, motivation.*

## 1. BIDEGURUTZETIK ATERATZEKO PALANKAK

Urte batzuk dira jadanik euskararen biziberritze prozesuan ziklo aldaketa bat iragartzen dela. Bidegurutzea eta errotondaren irudiak erabili izan dira bizitzen ari garen garaia ilustratzeko eta, iritziak iritzi, euskalgintzan somatzen da etapa bat amaitzen eta bestea zabaltzen ari dela. Sentimendu bat da, baina sentimendu honen azpian arrazoi sendoak daudela esan daiteke.

Euskalgintzan hausnarketa garaia izan da azken urteotakoa. Euskaltzaleen Topaguneak abiatu zuen 2010. urtean berea, eta ondoren etorri dira Kontseilua, Tokikom, Euskal Herrian Euskaraz, Euskaltzaindia edo Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren baitan egindakoak ere. Herriz herri ere nabarmena da gogoeta premia, tokian tokiko Euskaltzaleen Elkarte eta Topaguneek egindako hausnarketak hamarnaka konta baitaitezke (euskaltzaleen elkarte berriak sortu, birsortu, eraberritu, funtzioak berrikusi edo herri egituratetik eskualdeotara pasatzeko balio izan duten gogoetak).

Eremu sozio-politikoan funtsezko aldaketak gertatu dira azken urteetan (ETAren jarduera armatuaren amaiera, eragile politiko berriak, aldaketa politikoa Nafarroan eta administrazio egitura berria Iparraldean, besteak beste). Inoizko egokierarik aldekoena dugu eta euskalgintzak aukera baliatzen asmatu behar du. Euskaltzaleen bilguneak zabaltzeko eta indartzeko abagune ezin hobea dugu aurrean.

Ezin ahaztu aldaketa sozio-politiko-ekonomiko handiak gertatu direla. Gazteen emigrazioak eta atzerritarren immigrazioak erronka berriak zabaltzeko dizkigute: nola lortu etorri berriak euskarara hurbilaztea eta beren seme-alabak euskararen bidez sozializatzea edo gure diaspora berriarekiko harremanak mantentzea. Digitalizazioak, telefoniak eta Internetek komunikazio moduak eraldatu dituzte, bestetik. Gainera, globalizazioaren eta krisi ekonomikoaren eraginez, ingelesa ere gero eta gureagoa da.

Euskalgintzaren etapa berri honetan belaunaldi aldaketa ari da gertatzen. Batetik, 1982 inguruan sortutako erakundeek 35 urte beteko dituzte eta bertan lanean hasitakoak erretiroa hartzen ari dira; egoera soziolinguistikoa errotik aldatu denez, erakunde hauen eta 25 bat urte dituzten Euskaltzaleen Elkarten funtzioak, egiturak eta praktikak egokitu egin behar dira. Bestetik, nagusiki D eremuan ikasitako lehen belaunaldia jada lan-munduan ari da integratzen eta familiak osatzen hasi da; belaunaldi honekiko harremanak lehentasun osokoa behar du Euskaltzaleen

---

***Euskararen  
egoerak hobera  
egin du  
nabarmen  
aurreko  
hamarkadetan,  
baina hobekuntza  
nabarmentzen  
duten datuekin  
batera, azken  
urteotan,  
motelaldi edo  
geldialdi egoera  
adierazten  
dutenak ere  
badaude.***

---

***Euskalgintzan  
beraz, ziklo berri  
bat abiatzeko  
beharra da kezka  
iturri nagusia eta  
bidegurutzetik  
irteteko hartu  
beharreko  
neurriak  
zeintzuk diren  
identifikatzea  
lehentasun.***

Elkarteentzat eta euskalgintza osoarentzat, gizarte-sektoreetan erabilera dinamikak sustatzeko (administrazioa, elkarteak, lan-mundua...) eta osatzen diren familia berrietako etxeko hizkuntza euskara (ere) izan dadin.

“Berrikasi eta Berrikusi” txostenean genion bezala, euskararen egoerak hobera egin du nabarmen aurreko hamarkadetan, baina hobekuntza nabarmentzen duten datuekin batera, azken urteotan, motelaldi edo geldialdi egoera adierazten dutenak ere badaude.

- Ikastetxeetan orokorra da erdararen erabileraren inguruko kezka eta inizatiba arrakastatsuen falta; maiz entzuten da, ikasleek gero eta erdara gehiago darabiltela, baita gela barruan ere.
- Etxeko erabileran eta arnaguneetan ez dugu aurrera egin, atzera egin ez dugunean.
- Administrazioan, oro har, ez da hautsi erdararen inertzia, salbuespen azpimarragarri batzuetan salbu.
- Zantzu estatistikoak ere baditugu: erabilerak ez du nabarmen gora egin, ez behintzat erritmo berean. Euskara erdara beste edo gehiago darabiltenak Euskal Autonomia Erkidegoan %18,1 izatetik %20,5 izatera pasa dira 1996tik 2016ra. Eremu hurbilean eta formalean zerabiltenen proportzioak hobetu egin ziren 1991tik 2011ra; baina 2011tik 2016ra egoera ez da mugitu. Eta hauek dira Euskaltzaleon Elkarteon eragin esparru nagusienak.
- Nafarroan ezagutzak eta erabilerak gora egin dute, baina aurkako jarrerak indartu egin dira.
- Kultur kontsumoaren aldatetek, krisiak eta hazkunde ezak ondorioak eragin dituzte. Sektorea krisi iraunkorrean dugu (irratia alde batera utzita) eta sekulako garrantzia izango du Euskaltzaleen Elkarteon inguruko hedabideak testuinguru berrira egokitzea.

Urte hauetan inertzia asko sortu da euskalgintzan, baina testuingurua eta egoera soziolinguistikoa aldatu egin dira, eta inertzia horiek astintzeko unea da. Jauzi kuantitatibo-kualitatiboak emateko beharra eta aukera dugu. Horrek eskatzen du egiten dugunaz eta egin beharko genukeenaz hausnartzea.

Hausnarketaren aldia izan da azken urteotakoa eta ziklo berri bat abiatzeko helduleku eta proposamenak aurkitu daitezke egindako gogoeta horietako zenbaitetan: Jon Sarasuaren “Hiztunpolisa” liburuan, Topalabe taldearen “Berrikasi eta Berrikusi” txostenean, Euskararen Aholku Batzordearen “Eta hemendik aurrera zer?” txostenean, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko “Donostiako Protokoloa”n, Garikoitz Goikoetxearen

“Euskara irabazteko bidean” liburuan edo 99. eta 100. BAT aldizkarietarako Xabier Erize, Iñaki Martínez de Luna eta Mikel Zalbidek idatzitako artikuluetan, besteak beste. Ekarpen honetan, gogoeta hauetan agertu diren zenbait palanka, herriz herriko dinamiketara eta Euskaltzaleen Elkartearen egitekoetara ekarri nahi genituzke.

Ziklo aldaketaren ideia euskalgintzan barneratuta badago ere, ez da berdina Euskal Herri osoan euskararen normalizazio prozesuak bizi duen momentuarekiko dagoen sentipena. Ez da berdin bizi lurralde guztietan (bizi-indarra eta eragiteko ahalmena ez da parekoa lurralde eta eskualde ezberdinetan), eta ezta ere gizarteko sektore guztietan (gizarte osoak ez du berdin bizi euskararen normalizazioaren premia eta orain arteko ibilbidearen gaineko irakurketa).

Euskalgintzan beraz, ziklo berri bat abiatzeko beharra da kezka iturri nagusia eta bidegurutzetik irteteko hartu beharreko neurriak zeintzuk diren identifikatzea lehenetsun. Prozesu konplexuek irtenbide sinpleak ez dituztela jakinik, Topalabe taldeak “Berrikasi eta Berrikusi” gogoetan palanka funtzioa izan zezaketen lan-ildo batzuk proposatu zituen eta hari horietatik tiraka, herriz herri Euskaltzaleen Elkarteek bete ditzaketen funtzioetara ekarri nahi izan ditugu artikulua honetan. Neurri edo proposamenok berez eragin dezaketen mugimenduz gain, dinamika berriak pizteko baliagarri izan daitezkeelako izendatu ditugu palanka modura.

## 2. ZUBIAK ERAIKITZEN

Euskaltzaleen Elkarteentzat ez da arrotza zubigintza, euskararen normalizatorako elkarlan dinamikak sortu, sustatu, lagundu eta erraztea. Euskaltzaleen mugimenduaren oinarrietan dago topaguneak, harremantarako espazioak izatea eta sortzea. Topaguneak izatea, Euskaltzaleen Elkarteak euskararen bueltan ideologia, iritzi eta bizipen anitzeko herritarrak batzeko gune modura sortu zirelako. Eta bilguneak sortzea, herritar guztientzako ekimen, espazio eta guneak eratzeko lanari hasieratik heldu ziotelako. Horregatik, euskaltzaleen mugimenduak bere eginkizuna berreskuratu eta zubigintzari indarrez heltzeko garaia da.

Zubigintza hiru eremutara behintzat eraman daiteke. Hiru zubi mota eraikitzeak euskararentzat eta euskalgintzarentzat aro berri bat zabaltzen lagunduko luke:

- 1) **Gizarte eragile eta erakunde publikoen arteko zubiak.** Euskal Herrian eten asko bizi izan dituen egoera batetik gatoz, tartean gizarte eragile eta administrazio publikoen artekoa. Eremu sozio-po-

---

***Euskaltzaleen  
Elkarteek  
zaindu,  
dinamizatu eta  
erraztu egin  
behar dute  
euskarari  
dagokion  
zubigintza,  
alderdi  
politikoen  
artean,  
euskalgintza  
sozialaren eta  
administratiboar  
en artean,  
euskalgintza  
soziala osatzen  
duten eragileen  
artean eta  
herrietako beste  
eragileekikoa  
ere.***

**Bai  
erdaldunekiko  
eta bai  
etorkinekiko  
harremanak  
sustatzeko bideak  
landu behar dira.  
Harreman hortan  
gainera,  
hizkuntzaren  
normalizatzea  
bera berbalizatu  
beharreko gaia  
da. Harreman  
hauetan asko  
dugu ikasteko eta  
euskalgintzaren  
ohiko  
dinamiketan zer  
dugun egokitu  
beharra ikusiko  
dugu.**

litikoan egon diren aldaketek, baina, aukera egokia ematen dute eragile eta erakunde arteko harremanak beste modu batean antolatzeko. Hizkuntza politikaren ardura du administrazioak, baina baita gizarte eragileek ere, nazioarteko esperientziak eta ekarpen teorikoek erakutsi dutenez, eta Euskal Herrian frogatu ahal izan dugun bezala. Beraz, funtzio eta ardura banaketa, elkarlana, koordinazioa eta konplizitatea dira hizkuntza politikak aurrera eramateko zoru komunik onena, beti ere, eztabaida eta kritika eraikitzailez hornituta. Euskaltzaleen Elkarteek zaindu, dinamizatu eta erraztu egin behar dute euskarari dagokion zubigintza, alderdi politikoaren artean, euskalgintza sozialaren eta administrazioaren artean, euskalgintza soziala osatzen duten eragileen artean eta herrietako beste eragileekikoa ere.

2) **Lurralde arteko zubiak.** Banaketa administratiboez batetik, eta tokikotasunari lehentasuna emateak bestetik, lurralde arteko harremanak apaltzea ekarri du euskaltzaleen mugimenduan ere. Hizkuntza komunitatea trinkotuko bada ikuspegi osoa landu eta lurraldeen arteko harremanak biderkatu behar dira, bai Ipar eta Hego Euskal Herriko euskaltzaleen arteko harremanak, eta baita eremu euskaldun eta ez hain euskaldunetako Euskaltzaleen Elkarteetan eta era guztietako erakundeen arteko harremanak ere.

3) **Hizkuntza komunitate arteko zubiak.** Euskaltzaleen Elkarteak euskaldunon sareak antolatzeko tresna izan dira bere ibilbide osoan, hizkuntza komunitatea trinkotzea helburu nagusi izanik. Lan eskergea egin da, eta badago zer eginik oraindik ere, ingurune batzuetan bereziki. Baina helburu horri beste eginkizun bat ere gehitu behar zaio: beste hizkuntzetan bizi direnekin harremana lantzea. Herrikide erdaldunekin dugun harremana Euskaltzaleen Elkarteetan agendan egon behar da, komunitateen arteko harremana ez baita eremu pertsonalera mugatzen den zerbait. Gure “konfort” eremuetatik atera eta bai erdaldunekiko eta bai etorkinekiko harremanak sustatzeko bideak landu behar dira. Harreman horretan gainera, hizkuntzaren normalizatzea bera berbalizatu beharreko gaia da. Harreman hauetan asko dugu ikasteko eta euskalgintzaren ohiko dinamiketan zer dugun egokitu beharra ikusiko dugu.

### **3. “BERRIKASI ETA BERRIKUSI” TXOSTENETIK DATOZEN ILDOEN ZEHAZTAPENA**

**I**  
Txostenean 7 ildo proposatu ziren. Horietatik, gure ustez herrietara egokitze aukera gehien ematen duten lauak garatuko ditugu ondoren.

### 3.1 Hiztun komunitate emantzipatua eragile

Euskaltzaleen Elkarteek sorreratik izan dute helburu modura hiztun komunitatea trinkotu eta zabaltzea, beti ere euskaltzaletasuna bestelako interesen gainetik jarriz eta tokian tokiko hizkuntza komunitatearen artikulazioa, euskara kohesiorako elementu modura erabiliz. Euskara Elkartek askoren hastapenetan ahalegin handia egin zen herriko sentsibiltate politiko ezberdineko euskaltzaleak bildu eta elkartearen aurkezpenean aniztasuna zaintzeko. Horregatik, “batzen gaituena garrantzitsuagoa delako” esaldia lelo bat baino gehiago izan da beti: printzipioa eta zaindu beharreko eginkizuna izan da eta gaur egun bada oraindik. Eginkizun modura zaintzeak baditu bere arriskuak (batzen gaituzten elementuak etengabe bilatzeak geldotasuna eta arriskuak hartzeko zailtasunak ekar ditzake), baina onurak askoz ere garrantzitsuagoak dira (onarpena da horietan aipagarriena, gizarte onarpen zabalarekin abiatzen diren ekimenak eta ematen diren urratsak baitira sendoenak).

Ziklo berriak eskatzen du Euskaltzaleen Elkarteetan eta herrietan adostasun zabaleko espazioak sortzea (ez baldin badaude) eta ikusgarri egitea (sortuta daudenean). Tokian tokiko egoerak ezberdinak dira, baina garrantzitsua da Euskaltzaleen Topaguneek herriko euskaltzaleen aniztasuna islatzea, herrikideen aldetik euskaltzale guztiak biltzeko gai diren guñe modura ikusiak izatea eta herriko euskaltzale erreferenteak elkarteen bueltan izatea. Horrek emango dio elkarteari, besteak beste, eragina izateko aukera.

Baina hizkuntza komunitatearen eragina ez da elkarteen osaerara soilik mugatzen. Euskaltzaleen mugimenduaren eragin ahalmena herriko gizarte mugimendu, erakunde eta enpresatan eragiteko gaitasunaren araberak neurtzen da. Eta horretarako Euskaltzaleen Elkarteek beste eragile eta mugimenduekin zer lotura eta harreman duten ere kontuan hartu beharra dago. Euskalgintza tradizionaletik harantzago joateko garaiak dira. Euskaltzaleen mugimenduaren funtzioa izan behar da euskararen biziberritzea ipar lan egingo duten guñe iraunkorren sorrera, herriko eragile askori zabaldua egongo direnak, hizkuntzaren gaian erreferente izanik herriko beste eragile eta mugimenduekin harreman sendoa izango dutenak. Bide horretan, herri eta eskualde batzuetan ematen ari diren dinamikak (Aiaraldean eta Elgoibarren, adibidez) interesgarriak dira, Euskaltzaleen Elkarteak egitasmo eta plangintza zehatzen bueltan ari direlako ohiko euskalgintzako eta beste eremu batzuetako eragileak batzea eragiten.

---

***Garrantzitsua da Euskaltzaleen Topaguneek herriko euskaltzaleen aniztasuna islatzea, herrikideen aldetik euskaltzale guztiak biltzeko gai diren guñe modura ikusiak izatea eta herriko euskaltzale erreferenteak elkarteen bueltan izatea.***

***Euskaltzaleen elkarteak izan daiteke (edo ez) herriko eragile publiko, pribatu eta gizarte eragileen erreferentzia euskararen arloan. Bi baldintza bete behar dira horretarako: apustua egitea (nahi izatea) eta herritarren zein erakundeen onarpena izatea (ahal izatea). Edozein kasutan, barruan edo kanpoan izan, gune hori eraikitzen lagundu behar du elkarteak.***

Beste eremu batzuetako eragileekin harremana izateak, plazan aritzeak, baiditu kontraesanak sortzeko arriskua. “Euskaltzaleen Elkarteetako oinarrietako printzipio batek, eta zalantzarik gabe, beste eragile batzuen oinarriekin kontraesana sor dezake horrek. Edonola, kontraesankorrek izan daitezkeen bi xede uzartu behar dira etengabe: sakoneko eredu aldaketaren (hizkuntza ereduaren, eta beraz, gizarte ereduaren aldaketaren) bultzada eta, bestetik, gizarte osoan eragiteko helburuarekin eremu ezberdinetako erakunde eta pertsonekin aritzea. Bi xede horien artean etengabe hartu behar dira erabakiak.

Euskaltzaleen elkarteak izan daiteke (edo ez) herriko eragile publiko, pribatu eta gizarte eragileen erreferentzia euskararen arloan. Bi baldintza bete behar dira horretarako: apustua egitea (nahi izatea) eta herritarren zein erakundeen onarpena izatea (ahal izatea). Edozein kasutan, barruan edo kanpoan izan, gune hori eraikitzen lagundu behar du elkarteak.

### **3.2 Diskurtso berria herrietan ere landu daiteke**

Azken urteotako gogoeta gehienetan euskalgintzatik eta gizartetik euskararen gainean darabilzkgun diskurtsoak egokitu beharra azpimarratu da. Behar hau bi arrazoirengatik sortu da batez ere: egoera sozialaren eta soziolinguistikoaren aldaketak behartuta (ezagutzaren hedapena, etorkin berriak, eleaniztasunaren zabalpena...) eta orain arteko diskurtsoarekin zailtasunak ditugulako hainbat sektoretara iristeko (gazteak, euskaldun ez inplikatuak, ez abertzaleak, etorkinak...). Sektore berrietara zabaltzekotan, beraiekin partekatuko den diskurtso aglutinatzaile-agoa eraiki behar da, aurretik datozen inertiak gaindituz. Denok dugu horretan, baina batez ere orain arte euskararen alde gutxi egin dutenek, mugitu beharko dutelako.

Diskurtso berriaren elementuak, aldaera ezberdinekin, baina gogoeta askotan irten eta errepikatu dira. Gugandik gertukoena, Iñaki Martinez de Lunak Euskararen framing-ari buruz egindako artikuluan eta Topalabe taldearen “Berrikasi eta Berrikusi” agirian aipatzen direnak dira. Oinarritzko zazpi erregistro zehazten dira bertan, diskurtso multzo bat eraikitzeko eremua markatzen dutenak: bizikidetzeta, identitatea, berdintasuna, aniztasuna, erantzukizuna, justizia eta errespetua.

Elementu horien garapena lan asko dago egiteko oraindik, baina oinarritzko egokitzapen batzuk proposatu dira jadanik:

— Hizkuntza berreskuratzetik irabaztera. Ideia honek errazago barneratzen ditu kanpotik etorriak eta ez du kutsu historiko-etnizistarik.

— Hizkuntzaren biziraupenetik ongizatera. Helburua euskararen (eta euskaldunon) ongizatea da, normalizazioa.

— Hizkuntza aldatzetik aukeratzera. Etorkizunean ere gure herrian egoera eleanitza izango dugu eta lortu behar da norberak nahi duen hizkuntza erabiltzea, eta euskaraz egin nahi duenak ez aldatu behar izatea.

— Elebakartasunetik eleaniztasunera. Bi ideia jasotzen dira aldi berean: hizkuntza gehiago jakitea aberastasun pertsonala eta kolektiboa dela, eta hizkuntza guztiek ematen digutela zerbait (eta denek zerbait diferentea).

— Integraziotik adopzioara. Kanpokoak hartzeko bi modu eta jarrera dira.

— Konfliktibitate, konplizitatera. Diskurtso bateratuagoak eta positiiboagoak behar ditugu (eztabaida baztertu gabe). Euskarak batzen gaituela aldarrikatzen dugu eta horretarako bideak jarri behar dira.

Gizartean euskararen aldeko oinarri soziala dago eta aukera historikoa dago euskararentzat. Hori diote etengabe jasotzen ditugun datuek, eta hori baieztatzen du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatuta Iñaki Martínez de Lunak zuzendutako “Euskararen Gaineko Oinarrizko Lanketa (EGOD)” ikerketak ere.

Diskurtsoaren elementu hauek euskalgintzan nahikoa babes handia dutela uste dugu. Baina ez da gizarteratze eta komunikazio lanik egin. Gutxi zabaldu ditugu orain arte. Euskaltzaleen Elkartearen funtzioetako bat izan daiteke diskurtso berria bai formazioan eta baita komunikazioan ere txertatzea. Barnean landu aurrena eta ondoren, gizarteratu. Oinarrizko ezagutza soziolinguistikoaren zabalkundean ere badago zer egina.

Euskaltzaleen Elkarte bakoitzak darabilen diskurtsoak eragin zuzena izango du —aldekoa edo kontrakoa— herrietako normalizazio prozesuetan. Garrantzitsua da erregistroak eta ideiak egokitzea eta garatzea, elkarte eta euskaltzale bakoitzak barneratu eta egoera bakoitzean egokiena erabiltzea.

Baina diskurtso berria ez dira hitzak edo kontzeptuak bakarrik. Jarrera berriak eskatzen ditu, eta metodo berriak, bai Euskaltzaleen Elkarteetara dagokienez, baina baita herri edo eskualdeko administrazioari eta eragileei dagokienez ere. Diskurtsoa praktikei lotuta dago erabat. Horregatik, bizikidetzak, berdintasuna, aniztasuna... aipatzen baditugu, kontzeptu horiekin koherentea izango den praktika eraiki behar dugu. Adibidez, bizikidetzak aipatu bada, beste komunitateetarako harremana

---

**Baina diskurtso berria ez dira hitzak edo kontzeptuak bakarrik. Jarrera berriak eskatzen ditu, eta metodo berriak. Bizikidetzak, berdintasuna, aniztasuna... aipatzen baditugu, kontzeptu horiekin koherentea izango den praktika eraiki behar dugu.**



**Herrietan lor  
daitezkeen  
gizarte-  
adostasunek udal  
mailan ere  
eragin dezakete  
arnasgune  
politikoa sortze  
aldera.  
Euskaltzaleen  
Topaguneek  
funtzio  
garrantzitsua  
dute hor,  
alderdien arteko  
harremana  
erraztuz: alderdi  
guztiek  
interlokuzio  
iraunkorra  
mantenduz eta  
elkartearen  
ohiko  
funtzionamen-  
duan zein  
bazkideztan  
aniztasun sozio-  
politikoa  
zainduz.**

edo eleaniztasunaren garrantzia mahai gainera ekarri behar da, baina baita euskararen ezagutzaren unibertsalizazioaren ezinbestekotasuna, gutxienez ulermen mailan.

Herriko eragileei dagokienez, diskurtso berriak praktika berriak ere eskatzen ditu. Herri bakoitzean bertako errealitatera egokitu beharreko praktikak dira, baina palanka modura balia daitezten eragin behar da:

— Gaia agendaren erdigunera eraman behar da herriko eremu guztietan: udaletxean, ikastetxeetan, lantegietan edo era guztietako elkarteetan. Enpatiatik eta konplizitatetik, ilusiotik eta erakarmenetik, baina determinazioz egin beharra dago. Eta agendara eramatearekin batera, euskararen zeharkakotasuna landu beharra dago, erakunde eta elkarten egitura guztia har dezan.

— Aktibazioa. Erabileraren aldeko erabaki praktikoak hartu eta hartuarazi behar ditugu, eta inertziak astindu.

— Hizkuntza mailako funtzionamenduari buruzko erabakiak erakunde barruan nahiz kanpoan komunikatu behar dira. Erabakiak hartzearekin batera, motibatu eta ilusionatu egin behar dugu.

### 3.3 Arnasgune politikoa herrian ere

Topalabe taldeko kideok agiri eta artikuluetan maiz aipatu dugu Euskal Herrian arnasgune politikoa behar dela. Hizkuntzaren inguruan alderdien arteko akordioak lortzeak, garrantzi handia izango du herrietan ere, bidegurutzea gainditu eta urrats sendoak emate aldera, nahiz eta jakin, alderdien arteko goi-mailako harremanek tokian-tokikoak baldintzatzen dituztela. Akordio horien oinarrian behar dute, euskarari lehentasuna ematea agenda soziopolitikoan eta hizkuntza normalizazioaren aurrerabiderako oinarriak adostea hurrengo belaunaldiari begira. Eta, ahal bada, ez alderdi abertzaleen artean bakarrik.

Herrietan lor daitezkeen gizarte-adostasunek udal mailan ere eragin dezakete arnasgune politikoa sortze aldera. Euskaltzaleen Topaguneek funtzio garrantzitsua dute hor, alderdien arteko harremana erraztuz: alderdi guztiek interlokuzio iraunkorra mantenduz eta elkartearen ohiko funtzionamenduan zein bazkideztan aniztasun sozio-politiko zainduz. Eginkizun hauek ikuspegi emantzipatu batetik egitea behar beharrezkoa da. Aurretik aipatutako oinarriak ongi finkatuz gero, bere ahots propioa zabaldu ahal izango du modu autonomoan, egon daitezkeen era desberdinetako presioak neutralizatzeko eta modu burujabearen erantzuteko moduan.

Horrelako eginkizun bat betetzeko aurrean handia egin beharra dago eta batez ere, elkarteak baloratu behar du zein den bere posizioa eta zein den abiapuntuko egoera. Elkarrekin, beren egoera aztertzerakoan, honako galderak egin diezazkiokete beren buruari:

- Zeintzuk dira herrian dauden adostasunak euskararen normalizazioari begira?
- Herritarren artean (eragileen artean), zeintzuk konpartitzen dira?
- Izan daitezke konpartitzen diren horiek udal taldeetan adostasunak eragiteko oinarriak? Eskatuko da horiek gobernu programe-tara ere eraman daitezela?
- Dauden desadostasunak nola leundu, bideratu eta gainditu litezke?

### 3.4 Motibazioa eta bizi-indarra

Euskaltzaleen mugimenduaren funtzio nagusia hizkuntza komunitatearen motibazioa eta bizi-indarra lantzea izan da bere sorreratik. Euskaltzaleon bizi-indarra indartsu izateak soilik ematen du hizkuntza komunitate modura ditugun erronkak gainditzeko bermea. Era berean, aurretik aipatu izan diren hainbat urrats emango balira, ziur gaude motibazioan ere jauzi handia emateko moduan egongo ginatekeela.

Hizkuntza komunitate indartsu bat izateko eta tokian-tokiko euskararen aldeko gizarte aktibazioa pizteko, gizarte mugimendu sendoa behar da, pertsonen motibazioan eraginez. Eta motibazioa zerbaiten parte eta eragile sentitzean lortzen da. Urtetan motibazio iturri garrantzitsuak izan dira ekimen sinbolikoak: Bai Euskarari kanpaina, Korrika, Ikastolen eta eskola publikoaren festak, euskararen maratoniak... Badute indarra eta funtzioa oraindik ekintza sinbolikoek. Izan ere, azken urteotan zenbait herritan ekintza sinbolikoen eskutik etorri da komunitatearen berraktibazioa. Asmatu behar dugu kasu hauetan, ekintzatik harantzagoko eraginak lortzen, ekimenen helburua herriko dinamika sozial euskaltzalea berrindartzea izan behar baita; tresna dira, ez helburu. Era berean, gizarte dinamika berriek ohiko ekintza moldea apurtzea ekarriko dute. Diskurtsiboki eta sinbolikoki (iruditerian, erritoetan) ekintzaile berriek sortu behar dituzten elementu berriak behar dira.

Azken urtean euskaltzaleak ahaldundu eta aktibatzea helburu duten esperientziak sortu dira Donostiako Egia auzoan, Lasarte-Orian, Aguirainen, Hernanin... Esperientzia hauek aurreko guztiekin bereizten dituen beste ezaugarri bat ere izan dute: indar sinbolikotik harantzago, aurrerapauso zehatzak proposatu dituzte. Aurrerapausu horiek erabi-

---

***Azken urteotan zenbait herritan ekintza sinbolikoen eskutik etorri da komunitatearen berraktibazioa. Asmatu behar dugu kasu hauetan, ekintzatik harantzagoko eraginak lortzen, ekimenen helburua herriko dinamika sozial euskaltzalea berrindartzea izan behar baita; tresna dira, ez helburu.***

---

**Euskaltzaleen mugimenduaren erronka hirukoitza izan behar da:**

- 1) euskara normalizatzeko urrats positiboak eragitea,**
- 2) ematen diren urrats guztiak jaso eta dokumentatzea eta**
- 3) aurrerapauso guztiak ikusgarri egitea, hedatzeko helburuarekin.**

leran eragiteko urratsak izan dira eta lagun izan dituzte norberaren portaera zein mintzakideen jarrerak aldatzeko baliabideak.

Urrats praktikoen bueltan erronkak sortzeko proposamen hauek bide berri bat zabaltzen dute. Hedatzen ari diren ekimenak dira eta hedapen horretan kontuan hartu eta azpimarratzeko hainbat puntu daude:

— Ekintzari baino prozesuari eman zaio garrantzia lehenengo esperientzietan (formazioa, sentsibilizazioa, baliabideak sortu eta zabaltzea...) eta garrantzi handia du horrek arrastoa utzi nahi bada eta astebeteko eragin sinbolikotik harantzagoko portaera aldaketetara jo nahi bada.

— Urratsaren ideia kontuan hartzekoa da; erronka bat jartzen da, baina konpromiso hutsa baino gehiago dakar ekintzak, epe luzerako eragina izango duen urrats bat emateko parte hartzen da ekimenean.

— Aurrerantzean, ekimena hedatu eta garatzerakoan, ikuspegi zabalarekin jokatzeko komeni da, ekimenaren filosofia norbanakoen arteko harremanetik arlo guztietara zabaltzeko ariketa egitea. Orain arte herritarren arteko harremanetan bakarrik proposatu dira urratsak. Ariketa berdina egin daiteke enpresatan, kirol taldeetan, administrazioan...

— Ekimen hau pertsona askoren banakako aktibazioen gehiketa huts modura ikusteko arriskua egon daiteke. Euskaltzaleen mugimendu antolatuen funtzioa izan behar da aterki kolektiboari arreta jartzea.

Laburbilduz, ekintza sinbolikoetatik harantzago, konpromisoen dinamiketarik urratsak ematera, lorpenetara pasatzea da erronka. Bide luzea dago oraindik egiteko, baina bidean lorpen asko ere badaude (eta gehiago eragin daitezke), eta horiek bisibilizatzea garrantzitsua da. Izan ere, zenbat gauza lortu ditu euskalgintzak 50 urtetan? Askok. Handiagoak edo txikiagoak, pertsonalak edo kolektiboak, erakunde nahiz enpresenak... baina sarri energia asko erabili ditugu lorpen horiek lantzen eta oso gutxi ikusgarri egiten.

Euskaltzaleen mugimenduaren erronka hirukoitza izan behar da: 1) euskara normalizatzeko urrats positiboak eragitea, 2) ematen diren urrats guztiak jaso eta dokumentatzea eta 3) aurrerapauso guztiak ikusgarri egitea, hedatzeko helburuarekin.

Euskaltzaleen mugimenduak hurrengo urteotan “euskarak 365 egun” egitasmoaren bidez erronka hirukoitz honi heldu nahi dio.

#### **4. AZKEN IDEIA BATZUK**

**I**

Hizkuntzaren normalizazioak behar duen hazkunde ziklo berria abiarazteko jartzeko herriz herri martxan jarri ditzakegun palanka batzuk aipatu ditugu orain arte. Ez dira bakarrak, baina Euskaltzaleen Elkartearen jardueran eragin handiena izan dezaketenak ekarri ditugu artikulura. Topalabe taldeak “Berrikasi eta Berrikusi” gogoetan aipatutako beste batzuek (epe luzerako plangintza eta hizkuntza politika; lege babesa, baliabideak eta erreferentzia; egitura eta autoritate zientifiko) ere izan dezakete garapenik herriz-herri, baina aurretik aipatutakoetan ikusten ditugu euskaltzaleen mugimenduarentzat helduleku nagusiak.

Ziklo berria ez du palanka bakarrak abiatuko. Euskaltzaleen Elkarteek egindakoarekin bakarrik ez dugu euskararen normalizazioa garapenaldi berri batean sartuko. Baina herrietatik euskaltzaleak antolatuta eta artikulatuta, egiteko oso garrantzitsua dugu.●

#### **AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK**

- Amonarriz, K.; Arexolaleiba, J.; Erize, X.; Irizar, M.; Laka, E.; Martinez de Lagos, I.; Martinez de Luna, I.; Mendizabal, J.; Sarasua, J. (2015). “Berrikasi eta Berrikusi”, *Topaberri*, 66 (2-11)
- Martinez de Luna, I. (2013). “Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamena”, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 86 (13-83)